


Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1994ko apirilaren 8a / IV. urtea / 122. zenbakia



RAMON GARATE/JOXEAN APEZTEGIA

Mendiaren alde gaiztoa

Hiru mendigoizale nafar hil dira asteburu honetan mendian. Urtetik urtera gehitzen joan den zerrenda bateko azken izenak dira, mendi istripuena izugarria izan baita azken urteotan. Mendian gero eta jende gehiago pilatzea,

prestakuntza falta... asko dira arrazoiak eta galderak, baina adituek mendiari beldur eta errespeto apurra galdu zaiola nabarmendu dute. Mendiaren alde gaiztoa da, eta askok ez bide dute oraindik ikusi.

Mapa mutuak

PELLO LIZARRALDE



Merke

Alde Zaharreko plazan eta denda ttipi eta ilunetan etxeoandre asko ibiltzen da oraindik. Etxekoandre profesionalaz ari naiz. Beste askok bezala etxeoandreak lanaren zamaz gain famarena eramaten ikasi behar izan du.

Hain zabaldua dauden usteak ez dira berehala aldatuko. Eros-tera ateratzearekin etxeoandrea paseietara doanaren alaitasunez abiatzen omen da. Armarioko hutsuneak taxutu eta zerrenda egirik, etxeoandreak galdetu, bilatu eta hautatu egin behar du. Gainerakoak deskribatzeko, estereotipoa osatzeko, esaldi solte batzuk erabiltzen dira: «...banandu egin omen ditun...», «...erisko zegoen...», «...gazte hil dun...», «...artista ona dun...», «...atzo telebisioan...», «...pelukerian leitu ninan Estefaniarena...», «...hamar kilo galdu ditin...».

Hipermerkatu deritzaien paradisu berri horietan salgaien koloreak erosleen txandalenak bezain biziak izaten dira. Hipermerkaturako bezeroa esosketaren kirolaria da. Taldeko jokua maite du, eta bere taldekoak familia eta lagunak izaten dira. Haurrak karrotxan sartuta, ez dute maparen beharrik sailez-sail aurrera egiteko. Lis-toenek pagatu aurretik kontsumitzen ikasi dute. Libertigarria da behar ez denaren atzetik joatea. Hurrek ere ongi dakite zein den helburua: «Han, ikusten?: Eskaintza berezia». Autoa kargatu arima arintzeko. Plastikozko poltsan idatzitako izenak gogoraziko die berriz bidea.

Denda ttipietako erronda egin ondoren etxeoandreak ere sosegatuago itzuliko ahal dira noiz edo noiz etxera! Dena den zailago zaie lasaitasun iraunkor bat erdiestea. Etxean edozein unetan ager baitaiteke arriskua: «Gatz pixka bat falta zaio», esan dezake norbait. Eta etxeoandrea botikineko pilulez oroitzen da. Erosketa zerrendan ez ditu inoiz optalidonak ahazten.

GUERE AUKERAK

ERAKUSKETAK

'Amazonia, azken paradisu' izeneko erakusketa zabalik dago Iruñean apirilaren 24a arte. La Caixa antolatuta eta Iruñeko Udalaren laguntzarekin, Gotorlekuko aretoan dago ikusgai. As-teheneetik larunbatera arratsaldean dago zabalik, 18.30etatik 20.30ak arte.

Igor Mitoraj eskultorearen erakusketa zabalik dago Iruñean, Nafarroako Museoaren aretoan, maiatzaren 8a arte. Lan egunetan goizeko 10.00etatik 14.00etara eta arratsaldeko 17.00etatik 19.00etara ikus daitezke eta jai egunetan goizez bakarrik. Astelehenetan itxita dago.

IKASTAROAK

'Autoestima eta trebetasun soziala', alde batetik, eta 'Soin espresioa eta gorpuraren onarpena', bestetik, dira Andrea Emakumearentzako Zerbitzuak antolatu berri dituen ikastaroak. Apirilean hasi eta ekaina bitartean izanen dira, arratsaldeko ordutegiarekin. Izena emateko Andrearen egoitzara joan (Nabarreria kalea, 15) edo 22 77 14 telefonora deitu behar da.

Eskulanak, Pintura eta Marrazkia, Jostura, Emakumeentzako Autodefentsa eta Yoga ikastaroak antolatu ditu Iruñeko Alde Zaharreko Auzo Elkartek. Apiriletik ekaina bitartean izango dira, eta izena emateko epea hilaren 15ean amaitzen da. Aldapa kaleko egoitzan edo 21 25 26 telefonoan egin daiteke matrikula.

MINTZALDIAK

'Aldaketa Euskararen Legean' gaiari buruzko eztabaida-mahaingurua izanen da bihar, apirilak 9, Zarrakazteluko Kultur Etxean. Herriko Kultur Patronatoak antolatu duen Aste Kulturaren barruan, arratsaldean izanen da. Bertan parlamentari hauek hartuko dute parte: Patxi Zabaleta (HB), Aladino Colin (PSN), Iñaki Cabases (EA) eta Martin Landa (IU).

BESTELAKOAK

Jokin Sorozabal eta Xabier Zeberio bertsolarien saioa izanen da bihar larunbata, apirilak 9, Lekunberriko Jubilatuen Etxean.

Sociedad Alcoholic, Flutter eta Ama Sai taldeen kontzertua izanen da bihar, apirilak 9, Lizarrako Oncineda Institutuan.

NAFAR KRONIKA

ALBERTO BARANDIARAN

Lehengoak nahiago

Indurain erretiratu zaiagu Euskal Herriko itzulia. Mina zuen, antza, belauanean. Zaletu askoren bihotzak kili-kili jarri zituen asteartean, tropelaren buruan ikusi zutenean berriro, baina kontrakoak belduztzeko baino ez omen zen. Bararena Tourra da.

Ni beti Hinaultzale izan naiz, aitortzen dut. Orduan ireki zitzaizkidan begiak txirindularitzarako, eta Berra, Errege Egunean egiten zen ziklokrossera etortzen zenean bere txirindularen txirrikiak ukitzen saiatzen nintzen. Jainkoa lurrean. Hark ez zuen inoiz minik belauanean, eta ikusi izan ditut odola zeriela ere esprintean. Hark beldurra ematen zuen, dena irabazten saiatzen baitzen. Hain zuzen ere, dena irabazten saiatzen ziren txirindularien garaiko azkena izan zen. Gero etorri zen Lemond, eta akabo. Horrek Tourra zuen buruan, ez besterik, eta hasieran asko kritikatzuten baldin bazuten ere —Giroan ordubete galduta heldu zen etapa batean—, hori da, azken finean, gure Migueltxo

maitea egiten ari dena.

Ez, ez dira lehengo garaiak, eta denok galdu dugu apur bat horretan. Izpiritu hori galdu ez duten bakarrak italiarrak dira, ezin uka. Horiek frogatuak

lik klasikoetarako balio omen zuen horietakoa. Eta Tony hor dabil, han-hemenka irabaziz, baina hura ere Tourra gogoan duela. Azkenean, helduko dira denak sasoi betean, eta Atarra-



irabaztea dute gustuko, eta Tourra bost axola: «Porco Tourra!» esaten omen dute. Baina ez da harrizkoa, Giroa haiendako dena da. Horiei gehitu zaie orain suitzar bat, soi-

biakoak irabaziko du, baina nik, aitortu behar, lehengoak nahiago. Edo oraingoak, baina italiarrak, faborez, niri ez baitzaizkit prestakuntza soberakoak gustatzen.

ASTEKO PERTSONAIK



Eugenio Bustingorri
Futbolaria

Aspaldiko partez, asteazkenean jokaturako Liga Txapelketaren Jardunaldi honetan Osasunak garaipena lortu du, ia bi hilabete bi puntuak eskuratu gabe igaro eta gero. Taldeko kapitaina izan zen golegilea, Eugenio Bustingorri hain zuzen. Tenerife taldeak irabazteko aukera ugari sortu eta joko hobea erakutsi bazuen ere, gorritxoek eutsi egin zioten abantailari, Sadar zelaiko ikusleen pozerako. Hala ere, gauzak oso gaizki daude Iruñeko talde gorritxoarentzat, azken postuan segitzen du, hiru puntuko aldearekin, eta sei jardunaldi besterik ez dira falta. Garaipen honek, ordea, galduta zuten itxaropena berreskuratze-ko balio izan dezake, partidu garrantzitsuak baitira geratzen diren guztiak.



Julio Anguita
Iuko Koordinatzailea

Iruñean izan da egun hauetan Julio Anguita Izquierda Unidako burua; herrien autodeterminazio eskubidearen eta Estatuaren eraketa federalaren alde mintzatu da. Anguitaren arabera, Estatu federalak bakarrik gogobete ditzake Espainiaren baitan dauden nazioen eskar-ak, eta federalismoa eta herrien autodeterminazio eskubidea lotuta daude, «zutabetzat herrien borondatea hartuta eratu behar delako Estatu federala». Luis Roldanen kasuari dagokionez, Goardia Zibileko zuzendari ohiak «intimitate eskubidea eta inpunitatea nahasten dituela» azaldu zuen Anguitak. Horri lotuta, diru bereziak kontrolatzearen alde azaldu zen 'kalifa gorria'. «Diru bereziak eta ezkutak ez dira gauza bera», azpimarratu zuen.

AHAZTU GABE!

Musika



Su Ta Gar, Etsaiak eta Biziairen Penan musika taldeen kontzertua izanen da bihar larunbata, apirilak 9, Berriozarko pilotalekuan. Herriko Alfabetatze eta Euskalduntze Koordinakundeak (AEK) eta Berriozarko Biziairen Penan musika taldeak antolatuta, gaueko 22.00etan hasiko da. Kontzertuaren ostean, berbena eta gaupasa izanen da goizaldera arte Jator taldearekin. Sarrerak, ohizkoa izaten denez, aurretik erosiz gero merkeagoak izanen dira, 1.000 pezetan, eta pilotalekuan bertan erosten dutenek, berriz, 1.300 pezeta ordaindu beharko dute. Kilkir Diskak eta Dientes Largos Discos etxeetan salgai daude jadanik sarrera ugari; baita Liverpool, Garazi, Herriko Taberna eta Kattu tabernetan ere. Era berean, Xalbador eta Auzolan liburudendetan ere eros daitezke 1.000 pezetako sarrerak. Berriozarren, berriz, Herria eta Goaz tabernetan jarri dituzte salgai. Taldeen kalitatea kontuan hartuta eta AEKren aldeko kontzertua denez, jende ugari joanen dela espero dute antolatzaileek.

jenero xumekoak

Neska mutilak

Mutil gaixtoekin ibiltzez gerotan, behar ez duzuna eginen duzu. Neska gaixtoekin, ordea, uste ez zenuena.

ELIAS SARASA - ERRO

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenetik ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...

Utzama

Euskara auzibidean

PATXI ULAIAR / IRUNEA

Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak bertan behera utzi du behin-behineko Ultzama eta Odieta idazkaria kontratatze-ko lanposturako deialdia. Arrazoia, deialdiaren barruan zegoen atal bat, idazkariak «ezinbestez» euskaraz jakin behar zuela zioena. Honek kezka sortu du inguruko euskaltzale eta taldeen artean, eta orain gora jotzeko aukera aztertzen ari da Udala. Hala ere, luze gabe, idazkariaren lanpostua betetzeko beste deialdia aterako du Udalak, eta oraingoan euskararen ezagupena merituak pilotzekoa izanen da, ez derrigorrezkoa.

Idazkaria kontratatze deialdia egin baino lehen, Ultzamako Euskara Zerbitzuak txosten luzea aurkeztu zuen udalean, inguruak zituen beharrak bilduz. Bertan azpimarratu zen idazkariak, hitz egiten ez ezik, euskaraz idazten ere jakin behar zuela, eta horri men eginez, udalak onartu egin zuen deialdian euskaraz jakin beharra «ezinbestekoa» zela. Hori zen horrelako baldintza paratzen zen lehendabiziko aldia.

Lehiaketara 65 bat lagun aurkeztu ziren, eta ondoren Esmerralda Landa Elizalde errekurritu egin zuen deialdia. Nafarroako Auzitegi Nagusiak onartu egin du errekurtsioa, eta deialdia bertan behera uzteko erabakia hartu du. Iraileko Nafarroako Buletin



Ultzamako Herria.

Ofizialean argitaratuta, epaiak dio deialdia «Konstituzioaren 14. arauari eraso izan daitekeela, gaztelania ez beste hizkuntza neurri jakin batean ezagutzea ezin da izan derrigorrezko bete-beharrak».

Orain, erabakia Ultzamako Udalaren esku dago, baina ez dago oso garbi zein izango den bidea. Deialdia berriro eginik ere, Auzitegi Nagusiko erabakiari errekurtsioa aurkeztu ahal zaio,

eta horretarako lanean ari dira bertako zenbait zinegotzi. Gehiengo, ordea, independenteen eskuetan dago, eta bertan ez dago aurrera jarraitzeko gogo handirik.

Egoera hori dela eta, Euskal Herriaren Euskaraz taldeak oharra plazaratu du eta protesta azaldu epaileek Euskararen Legeaz egiten duten interpretazioaz. Gogoratu behar da Ultzama euskal eremuaren barruan dagoela eta

Euskararen Legean garbi zehazten dela eremu honetan euskara ezinbesteko duten lanpostuak udalek zehaztuko dituztela. Aipatu prentsa oharrean EHEk horrelako erabakiek duten eragina azpimarratu du, «euskara puntuatu baina ez derrigorrezkoa jartzeko epaileek hartu duten erabakiarekin udalek eskuak lotzen dituelako administrazio lanetan euskararen erabilera arautzeko orduan».

Tutera

Asteartean zabalduko da ofizialki Guardian Navarra lantegi berria

IRUNEA

Guardian Glass Estatu Batuetako multinazionalak Tuteran paratu berri duen lantegia inauguratuko da ofizialki heldu den asteartean, hilak 12, eta bertan Espainiako Errege-erreginak izanen dira. Lantegi berri honek 210 lanpostu sortu ditu, eta 1.500 milioi pezetako inbertsioa egin du bertan. Hau da enpresa honek Euskal Herriaren paratuko duen bigarren lantegia, Laudion (Araba) 1934an zabaldu baitzuen beste faktoria.

Guardian Glass enpresa munduko beira ekoizle nagusienetakoa da, eta iaz urriaren lehen zabaldu zuen Tuterako lantegia. Egun seihun tona beira urtuta ekoizten du egunero, eta hori guztia automobilaren arloko merkatuetan komertzializatzen

da, bereziki Portugal, Frantzia, Italia eta Afrikako iparraldean. Tuterako lantegian lan egingo duten langileen % 80 nafarrak dira, eta horietariko asko —% 35, enpresaren datuen arabera— Tuterako Eskola Tekniko Industrialean ikasitakoak.

Hain zuzen ere, Guardian izan da Montes de Cierzo izeneko kiroldegian ezarri den lehendabiziko enpresa. Gune hau zabalera handiko enpresendako dago egin, eta Guardinek 170.000 metro karratuko zabalera dauka. Horietariko 38.000 estaliak dira.

Astearteko ekitaldira, esan bezala, Espainiako Errege-erreginak azalduko dira, eta ekitaldiak goizeko 10.30etan hasiko dira, multinazionalako buruek Nafarroako agintariei egingo dieten harrera ofizialarekin. Bertan izanen dira, besteak beste,

Jose Antonio Perez Sola Tuterako alkatea, Aurelio Rubio Hiri-gintza zinegotzia eta Fernando Labarga Industria zinegotzia. Horietan batera Juan Cruz Alli Nafarroako lehendakaria, Miguel Sanz lehendakariordea, Juan Manuel Egiagarai Espainiako ministroa eta Angel Rodriguez San Vicente Nafarroako Industria kontseilaria izanen dira. 11.30ak aldera helduko dira Errege-erreginak, eta orduan hasiko da inaugurazioaren ekitaldia. Ordubata t'erdietan Erriberriko paradorean enpresak emango duen bazkarira azalduko dira gonbidatuak.

Espainiako Errege-erreginen bisitaldiak ohizkoak dira dagoeneko Nafarroan, eta azken aldia joan den ekainean, Rafael Moneo arkitektoari eman zitzaion Bianako Printzea saria zela eta.

Berriozar

Kotxeak pintatzeko metodo berria

BERRIOZAR

Berriozarko Reparaciones Soria enpresak asteazkenean aurkeztu zuen kotxeak pintatzeko pintura ekologikoa, Euskal Herri osoko lehenbizikoa. Pintura honekin disolbenteen erabilera % 90 gutxitzen da, oinarria ura duen beste pintura batek ordezkatzen baititu.

Hori dela eta, ingurugiroa babesteko benetan oso onuragarria da, eta laneko osasuna eta segurtasuna areagotu egiten du. Pintura hau erabiltzeko ez da inbertsio handirik behar, eta pintatzeko ohizko metodoekin egin daiteke.

Halaber, izpi infragorriak erabiltzea gomendatzen da, hobeiki lehortzeko. Honek gutxitu egiten du lehortzeko denbora, baita kutsadura ere, eta energia aurrezten da.

Navarrieriako iturritik

Juan Kruz Lakasta

Non dago Gloria?

Non dago Gloria? Bai, Gloria diot, eta ez Guoli, Wolly, edo dena delako hori. Gloria txikia da, mehea eta beltzarana, eta egun 70 urte inguru edukiko ditu. Badu euritako bat, eguzkiak udan gogor jotzen duelarik ere eskuan daramana, hala nola Alde Zaharreko karrketan barna noraezean ibiltzeko ohitura. Alde Zaharrean mugitzen garen gazte guziok maiz ikusi dugu Gloria, frankotan entzun dugu bere ezterritik ateratako «Akerrak! Akerrak!», eta inoiz gure sorbaldan bere aterkiaren kolpeen indarra sufritu behar izan dugu. Uve Osasunako 'jokalari' zenaren belaunaldi berekoa kasik, ez du harekin inolako antzik. Gloriaren zainek bere baitan erreberia gordetzen dute, eta Uverenek, berriz, ez zuten horren arrastorik ere. Misericordia etxeko mojen, Fermín Ezkurraren eta bere lepotik barre egiten zutenen lagun zenak, etsai bakarra zuen, Osasunako misterra, 60 urte zituela zelairatzen ez zuela eta. Hil zenean, berari buruzko erreportaia zabala atera zuen Estafeta kaleko egunkariak.



Gloria ez da oraindik hil —hala espero dut behintzat—, baina hiltzen denean Diarioek —ez beti-koak ezta 'El otrok' ere— ez dute berari buruzko ezer argitaratuko. Gloriak aski ongi daki gizarteak oro har bera baztertu duela, eta gizartea oro har gorrotatzen du. Gazte iruindarrak —belaunaldiak joan belaunaldiak etorri— beti krudelak izan dira berarekin, eta berak aterkiarekin eta oihuka mendekua bilatzen du. Gizarteak zeukan guzia kendu dio, eta ez du bere karidadea onartzen. Hori dela eta, Misericordia etxeko kontra oihuka aritzen da karrkaz karrika, nahi duenak esateko duena entzun dezan. Esan bezala, ez dakit non dagoen; izan ere, azken hilabeteotan ez da Alde Zaharrean zehar ibili. Euskal Herriaren ez daukagu 'Batek daki non' saiorik egiten duen Patxi Otsolandirik. Horregatik, umezurtz utzi gaituen Alde Zaharreko gazte guzian izenean, zera galdetzen dut. Non dago Gloria?



Azken urteotan arroilen jaitsiera izan da jarduera arriskutsuena.

Hiru mendigoizale joan zaizkigu asteburu honetan. Ez dira lehendabizikoak eta ez dira azkenak izango, mendiak berez arriskua daukalako, baina azkeneko urteotako joerak kezkatuta dauzka mendi gidariak eta erreskateko lanen arduradunak. Denek aipatzen dute kasu frankotan dagoen esperientzia falta eta soberazko ausardia.

Ausardia sobera

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

Goibel hasi zaigu urtea. Garai honetako eguraldia bezain goibel. Istripu ugari, bereziki Aste Santuko egunetan, eta lau hildako, horietariko hiru nafarrak. Jendearen arreta pizteko ez ohi da bide egokiena gauzak bere onetik ateratzea, eta aditu guztiak aipatzen dute istripuak egon, egon behar dutela, mendiak berez bere arriskuak daukalako, baina bada parada egokia istripuen arrazoiak eta ondorioei begiradaxoa emateko. Sikiera egoeraz jabe gaitzen, axolagabekeria eruz baita mendizale askoren.

Istripuak gero eta ugariagoak baitira, mendiak jendez pilotuta dauden neurri berean. 'Desnivel' mendi aldizkariak azken alean dakarren artikulua baten arabera, Pirinioak dira, gure inguruan, istripu kopururik altuenak dituen parajea. Ondoren Asturias aldeko Europako Mendiak daude, eta Alpeetan kopurua gutxitu egin da franko azken urteotan. Estatistikei erreparatu, gehienetan zeharkaldietan izaten dira istripuak, eta ondoren eskaladan. Gertutik mendi eskia, arroi eta amilduegi jaitsierak eta azken urteotan puri-puritan

Estatistikei erreparatu gero, gehienetan zeharkaldietan izaten dira istripuak, eta ondoren eskaladan.

dauden hainbat ekintza. Istripuak harkaitzetan izaten ohi dira, ondoren xendetan eta elurretan. Kontrakoa usten dugun arren, pasabide errazetan eta eguraldi onarekin izaten dira ugariak, eta zauritutako esperientzia eta materiala ona izaten da.

Hala ere, esperientzia gutxi eta ausardia sobera omen dira istripu gehien sortzaileak. Mendiari errespetu pittin bat galdu zaiola, alegia. «Esperientzia falta izugarria dago mendizaleen artean» dio Jose Miguel Larrea Nafarroako Suhlitzaleen Mendi Erreskateko taldeko buruak, «eta gehienek ez dute ondo prestatzen irteera. Gainera, orain edozeinek egin nahi du edozer gauza, eta ez da baloratzen arriskua». Azken urteotan arroilen jaitsieran izandako istripuek eman diete lan gehiena, puri-puritan dagoen kirola

gogora etortzen zaizkit: errealtatea ikusteko modu bakarra da». Nafarroan bi ikastaro egin dira mendi medikuntza eta erreskateari buruz, eta lehendabizikoak arrakasta handia izan bazuen ere, bigarrenean, duela urtebete t'erdia egindakoan, ez zen partehartze handirik izan. Bere ustetan, prestatuntzaren bidetik etorriko litzateke istripu asko saihesteko aukera. «Gaur egun mendian dagoen jende pila-ketarekin edozeinek jotzen du zailtasunerantz, bere mailaren arabera ez dagoen zailtasunerantz, hain zuzen ere. Orduan, helburua eta mendiak dau-

ruak azterketak egin beharra azpimarratu du. «Joan den udan Artetara egindako ateraldi batean praka moztetan eta kamiseta batekin arroilen jaitsiera egiten ari ziren bi mutikorekin topo egin genuen. Astakeria bat da».

Prestakuntza eta errespetua, beraz, Mari Abrego mendizaleak, baina, psikologia aipatzen du istripuen jatorria jotzeko. «Oso ongi landutako» bere teoria sei puntutan zehazten da. Lehenik, istripu gehienak giza-erreakzioaren ondorio dira. Bigarrenik, taldearen eragina funtsezkoa da. «Bakarrik gaudenean» azaldu du, «gure erreakzioa desberdina da talde baten barruan daukagunarekin alderatuz gero. Gure ahultasuna beste lagunen artean babesten eta ezkutatzen dugu, eta horrela egiten dira akatsak. Adibidez, askotan ez ginateke ezta aterbetik ere aterako bakarrik egonez gero, baina talde baten barruan baldin bagaude babestuak sentitzen gara». Ondoren, taldeko 'liderrak' duen betekizuna azpimarratu du Mari-

rik. «Taldea guztietan badira dudak eta beldurrak dituztenak, beste konfiantza behar dutenak, eta gero 'burua', bere esperientzia, teknika edo izakerarengatik arriskuak eta protagonismoa bereganatuko dituen. Horren babesean ezabatu egiten dugu norberaren kontrola eta arriskuaren balorazioa». Halaber, «eta nire esperientziatik ateratako ondorioei begira», helburuak bere osotasunean ez direla baloratzen dio mendizale ospetsuak. Hori areagotu egiten du eguraldiak duen eraginak. Kanpoko taldeen betekizuna ere garrantzitsua da Mari-rik ustetan. «Beste egin badute, guk zergatik ez? esaten dugu askotan, eta horrek arriskuak areagotzen ditu, aurrera jarraitzea behartzen baikaitu, nahiz eta kontrako

Etaldeek prestatu egokirik ez eta koordinatu garrantzitsuak dituztenak.

kan zailtasunak oso ongi neurtu behar dira, eta hori gaur egun ez da egiten. Gaur egun dena azkar egin behar da, eta batez ere egin egin behar da».

Publizitateak horretan eragina badu, ezin uka. Material onenak eta aurreratuak jende askoren esku daude egun, eta askotan eramaten dutenek ez dakite ongi erabiltzen. Horrek arrisku handiagoa sortzen du frankotan. «Pioleta ezagutzen ez bada» azaldu du Koldo Aldaz mendi gidariak, «hobe da ez eramatea, hiltzeko arriskua ekartzea bestela». Belaguako aterbean urteak eman dituen mendizale honen arabera, prestakuntza falta larria da baita esperientzia duten mendizaleen artean ere. «Jendeak ez ditu ongi ezagutzen oinarriko teknika edo materialak, eta gaizki eginez gero, arriskuan daude askotan». Rafael Castel suhiltzaileen urpekarien bu-


iritzia izan».

Serafin Zubiri eta beste itsu zenbaitekin Aconagua egon berria, ostiraleko istripuan hil zen itsuaren heriotzaren berri izatean «zerbait berezia» sentitu zuela dio Abregok, baina kasu zehatzak aztertzeari uko egin dio. «Kasu guztiak dira desberdinak eta datu guztiak izan behar dira benetan akatsa non egon zen jakin ahal izateko. Gainera istripu gehienak egoera errazetan izaten dira, zailtasuna eta arriskua, askotan, ez baitaioz bat». Horri guztia buelta emateko, profesional eta bertako jendeari —aterbearen zaintzaileei, herritarrei— garrantzia eman beharra azpimarratu du Abrego mendizaleak.

Eta non gelditzen dira erreskate taldeen lana? Talde hauen lana ahalik eta txikiena izateko, oraindik, asko falta bada, euren prestakuntza ere maila egokia izateko urrun dagoela dio Aldazek. «Profesionalak dira, baina ez dago profesionaltasunik. Ez dute maila polita eta jendea ez dago ongi prestatuta».


Halaber, koordinazioa penagarria da, bai taldearen barruan bai talde ezberdinen —suhlitzaleak, Gurutze Gorria, Goardia Zibila— artean». Koordinazio hori Jose Miguel Larreaen eskuetan dago, eta berak ere jende gutxi dagoela aitortu du. «Zortzi gaude egun, eta martxan dagoen egitasmo baten arabera, 25 izango litzateke zenbaki egokia». Ur azpiko erreskate taldean zortzi dira, «urri» hauek ere, baina aurten gehiago etorriko diren esperantza badute.

Gai korapilatsua, tarteko franko sartzen direlako, mendizalea bera —hau da, milaka lagun— kontuan hartuta. Askotan esan den bezala, tontorrik ederrenak ere ez du mezei bizitza bakar bat ere, eta errespetua ez galtzeko ohartarazi du Abregok.



Erreskate lanetan jende nahikorik ez dabilela aipatzen arduradunek.

ISTRIPUEN ETENGABEKO GORAKADA



Iturria: Euskal Herriko Medizaleen Federakundea

J. APEZTEGIA

«Tigre ganean zamalkatu»

R.O. / DONOSTIA

Azken urteotan nabarmen egin du gora mendizaleen arriskuak. Igande goizeroko ibiltariez gain, ohizko paseo eta itzulingeruez gain, Pirinioak eta Alpeak ere eskura ditugu orain. Mendi zailagoak eta altuagoak aukeratzen dituzte jendeak, eta garaia jada ez da oztopo. Udazken bezalaxe neguan joaten gara mendira. Eta zer esan, kanoi jaitsiera, trekking, puenting, rafting eta mendiarren inguruan sortu diren ez dakit zenbat 'ing' horietaz. Modako kirola da, dudarik gabe, mendia.

Eta noski, zaletasunaren neurri berean istripuak ere gora doaz. Gora nabarmen. Hego Euskal Herrian istripu kopurua neurri gabe igo zen 1987tik 1992ra. 1987an ehun istripuak behara

izan ziren, baina 138 gertatu ziren 1988an (% 70,7 gehiago). Ez zen jaitsi, ordea, hurrengo urteetan: 228 istripu 1989an, (% 65,2 gehiago), 248 1990ean eta 289 1991n. Urterik beltzera, ordea, 1992a izan zen: 562 istripu. Igoera honek, ordea, behera egin zuen joan den urtean eta 440 istripu zenbatu ziren.

Zenbaki hotzak hauek guztiak, baina errealtate baten isla, era berean. Istripuek gora egin dute, baina eta hildako kopuruak? Gora-behera handikoa da mendiak gure artean eraman dituen zerranda. Bakarrik hil den urteak badira (1985 eta 1988) eta 11-12 lagun hil direnak ere bai, orain bi urte eta iaiz bezala. Argi dagoena, zera da: mendizale eta istripu kopuruak gora egin duten neurrian, hildakoen kopurua bere horretan


mantendu dela.

Hau guztia hala bada, zergatik orduan hainbeste istripu? Prebentzio falta, arriskua eta oro har mendia gutxiesten, prestakuntza fisiko eskasa... arrazoi asko aipa daitezke. Argi dago mendiari ezin zaiola errua bota errepedeko istripuetan legez. Marta Lavoisier 'Aconagua, el centinela de piedra' liburua ilustrazioak egin dituenak, hala dio: «Tigre ganean zamalkatu behar da berak zu jan ez zaitzan». Mendia da tigrea eta hinduen ohiturei jarraiki, zamalkatu badirudi bere larderia gaintzen duzula.

Hala ere, kontuz, norberaren aukerak, mendiaren eta eguraldiaren egoera, joan eta itzultzeko denbora eta gainontzeko arrisku guztiak ondo neurtu behar dira. Prebentzioa, beraz, urrezko

araua, arriskua non dagoen jakin eta mendia ez gutxiesten bezala. Eta ahal izanez gero, ez bakarrik joan mendira, ingurua ondo ezagutzen duten lagunekin baizik. Aholkuak ematen hasita, materiala eta fisiko aldetik ondo prestatua egotea ez legoke sobera.

Honi loturik, istripuen kokagunea zehazten zaila den arren, gehienak inguruko mendietan eta Pirinioetan gertatzen direla ikusiko dugu. Himalayan eta mendi gorretan oso gutxi. Zer esan nahi du horrek, eskarmentu gutxiko mendizaleak azkarreki egiten duela Pirinioetara? Salbuespenak salbuespen, kasu askotan bai. Ezagutuko ditugu argi gaitzak diren istripuak ere, baina, oro har, pixkanaka joan beharrean mendi altuetara joan nahi dugu laster, eta maiz prestatu gabe.



Nafarroako Banakako Xake Txapelketako zortzigarren ihardunaldiko partida, 1994ko martxoaren 12an jokatu.

Santiago Karasusan (1. rankingean) -J.J. Saenz (1.954 ELOkoa, 9. rankingean).


1.e4, e5; 2.Zf3, Zc6; 3.Ab5, a6; 4.Aa4, Zf6; 5.0-0. Ohizko peoi ematea da, erregeari eraso egiteko. Beltzek ez dute eskaintza onartuko. 5... d6; 6.Ge1, b5; 7.Ab3, Ae7; 8.c3, Za5; 9.Ac2, c5; 10.d4, Dc7; 11. d5. Beltzen esparruan sartzea lortu dute. Peoi hori zirikatzailea da, eta hortik kentzeko oso zaila (alboko peoi beltzak gaintuak baititu). 11... Ag4; 12.bZ-d2, 0-0; 13.Zf1, b4; 14.Ze3, c3; 15.Zg4, Zg4; 16.c3, Gb8; 17.Zd2, Zf6; 18.c4, g6; 19.Ad3, Zh5; 20.Zf3, Zf4. Piezak jokatzeko espazio urriak eragindako jokaldia, agian. Bestela, alfilaren bidea ixteko asmoa. Dena dela ere, mugimendu okerra. Ikus koadroa. Peoi txuriak aurreratzeko parada iritsi da. 21.Af4, f4; 22.Dd2, g5; 23.e5, e5; 24.Ze5, Af6; 25.d6. Ohar gaitezen 'Ah7 xa' jokaldiaz, peoia babesten baitu. 25...Dd8; 26.d7, Dc7; 27.De2, Ae5; 28.De5, De5; 29.Ge5, h6. Alde horretako peoien sostengua da. Bi peoi horien ahultasunak orain arteko partida baldintzatu du, desoreka sortuta. 30.Gc5, Zb7; 31.Gc6, fG-d8; 32.Af5, Za5; 33.Gc5, Zb7; 34.Gd5, Gf8. Beltzek jokatu behar, baina jokaldi onik ez. Lotuta daude. 35.Gb1. Beltzek partida utzi zuten, jokaldiak bukatu zitzaizkielako, guztiz menperatuta.

Sorgin gaiztoa

Sorgin bat gaztelu batean bizi zen. Oso polita eta ederra zen. Begi urdinak, ile horia oso luzea, ez zen oso altua. Egun batean, pertsona bat ezagutu zuen, eta hura printzea zen. Sorgin gaiztoa maitemindu zen, baina printzeak ez zekien sorgin gaiztoa zela. Handik bi edo hiru egunetara ezkondu ziren. Eta oso pozik bizi ere. Hiru seme eta alaba bat izan zituzten. Denetatik, Txikiena alaba zen eta bere izena Susana zen; hiru semeenak, berri, Iker, Josu, eta Jose Mari ziren. Arratsalde batean, hiru umetxoak jolasten ari zirela emakume bat agertu zen. Hirurak berari begira geratu ziren, eta honek esan zuen: «ez ikaratu, ez dizuet ezer egingo, bakarrik gauza bat esango dizuet. Hau hari bat da eta muturretik askatzen bada bide bat egingo du. Bide honen bukaeran etxe polit bat aurkituko duzue». Hauek emakumeak esandakoa egin zuten.

Egia zen: etxe bat zegoen hariaren azkeneko muturrean eta etxearen barruan printzea eta sorgina zeuden. Sorgina umetxoarentzako jertsea egiten ari zen, umeak janzteko, eta umeak jarri eta jostailu bihurtu ziren. Jostailuak ere suge bihurtu ziren. Printzeari suge batek kosk egin zion, pozoindu zuen eta hil egin zen. Umeari jertsea jarri zioten baina Susanak ez zuen jarri, hiru mutikoak jarri eta bele bihurtu ziren. Susanari esan zion lehen haria eman zion andreak ezingo zuela hitzegin. Hiru urte, hiru hilabete, hiru aste, hiru egun, hiru segundu. Lehendabiziko eguna kallean pasa zuen, ezin zuen hitz egin, janaria erosi zuen eta jaten hasi zen. Gaua pasa zen. Bigarren eguna ailegatu zen. Uhartre batera joan zen, arrainak ikusi zituen, eta harriak uretan bota zituen. Horrela pasatu zuen urtebete.

Bigarren urtean bere anaiarekin elkartu zen, bainan ez zuen hitz egin. Bigarren urteko laugarren astean uhartean ere arkaitez batean eserita zegoen, eta mutil bat etorri zen eta hitz egiten hasi zen, baina ez zion erantzuten ezerri buruz, eta mutil horrek ogia jateko beste zerbait eman zion. Susanak ederki jan zuen eta ura uhartean zeukan iturri batetik edan behar zuen baina agertu zen andreak esan zion ez edateko pozoindurik zegoelako, eta berak eman zion pitxerra batetik. Bigarren urtearen bostgarren astean, itsasontzi handi batean ibili zen eta handik ateratzean han zegoen mutila eta janaria ekarri zion baina urik ez, eta bera egarri zen. Keinu batzuk egin zizkion eta gizonak ulertu egin zion. Gizona ura ekartzera joan zen, ura ekarri zion baina Susanak ikusi zuen ur pozoindua ekarri zuela eta ez zuen edan, hartu zion eta gorde egin zuen. Gero errekarra bota zuen, edalontzia eta guzti. Be-



M^a Carmen Otegi

(LEITZA)

rriro agertu zen ura ekarri zion andrea eta eman zion upel batean. Oraindik urte bat, hiru hilabete, asteak ere hiru eta segunduak ere bai falta zitzaizkion.

Beste urtebete nolanahi pasatu zuen, eta gero eta gutxiago falta zitzaion. Hiru hilabetetan egunero etortzen zen gizon hura eta elikagaia ere egunero ekartzen zion. Gero berarekin egoten zen egun guztia, eta mutilak dena esan zion Susanari. Susanak buruan hartu zuen, baina ezin izan zion esan bere izena eta bere buruarekin pentsatu zuen: «barkatu egin beharko didazu, ezin dizut hitz egin. Dena pastzen dudanean esango dizut». Hirugarren urtea heldu zenean gizonak eskatu zion Susanari ezkondu nahi zuen, eta baietz esan zuen buruarekin, eta bere etxera eraman zuen, bere gurasoak ezagutzera. Aita oso jatorra zen, eta ama ikusi zuenean harririk geratu zen. Ezkondu behar zuen egunean, amak ezkontzako soinekoa eta oparia eman zion baina ez zuen nahi izan. Ez zen fidatzen andreakin. Bazkaltzekoan gauzak onak zeuden, baina tarta ekarri zuenean ez zuen jan bere gizonaren amak ekarri zuelako eta pozoindurik zegoela

pentsatu zuen. Beren ama zuten baina ez zuten hitzik ere egiten. Urte batzuk pasa ondoren Susana haurdun geratu zen. Haurra jaio zen, eta Borja ezarri zioten izena. Txikia zela, sorginak desagertarazi egin zuen, eta Susana eta bere senarra harrিতuta geratu ziren. Susanak bazekien zein izan zen. Gizonari ez zion esan ezin zuelakoz ezer esan. Ia azkeneko egunak iritsi ziren, baina oraindik falta zitzaion.

Beste bi ume izan zituen, eta hauek ere desagertu egin ziren. Azkeneko egunetara ailegatu zen baina oraindik hiru egun falta zitzaion eta ezin zuen hitz egin. Sorginak Susana hartu eta Jesukristo bezala jarri zuen lotuta gurutzete batean. Sorgina etorri zenean su eman zion. Susanaren senarra egun guztian bere bila ari zen, eta ez zuen Susana aurkitzen.



Orduan trenbidera joan zen eta han aurkitu zuen Susana lotuta Jesukristo bezala, eta han zegoen sorgina ere. Denbora gutxi falta zitzaion Susanari hitz egiteko. Hiru anaiek lagundu zioten. Orduan sorginak bere buruari su eman zion, Susanari bi segundu falta zitzaizkion baina hala ere hitz egin zuen. Anaia txikienari baso batean hegala geratu zitzaion segundu bat falta zitzaizkielako, eta bere umeak ere agertu ziren. Denak batera etxera joan ziren, eta ez zen gehiago agertu sorgin gaizto hura.

Petroleoa Iruñerrian

70ko hamarkadan petroleo krisialdia zela eta, planeta osoa bazterrik bazter eskobatu zuten, Iruñerria barna, urte beltzaren bila. Ez dago esan beharrik hemen plazaratzen ditugun pasadizua benetakoak direla. Lehendabiziko pasadizua Xulapainen gertatu zen. Petroleo konpainiako lagunak lepogogorak ziren, setosoak, nolanahi konformatzen ez zirenetarikoak. Mendietan barna pistak egiteraino ere ailegatu ziren. Esker bekizkie. Batek jakin ze susmo txarrek jota, Xulapaingo txokorik izkutatuenaraino heldu ziren eta han zegoen larrean zulatzen hasi ziren. Burdinezko langa luze bat erabiltzen zuten horretarako. Langa sartu

ateratzen zebiltzalarik, jabea ageri zen.

Burdinezko langa ikusi bezain pronto, sutan jarri zen gizona. Petroleo aurkituz gero izan zitzaiken ondasunak kontatzen lasaitu nahi izan zuten konpainiakoek. Dena debalde. Ez zen dirunahia. Orduan galde egin zion ea zekiten non dagoen munduko ardatza. Eta konpainiakoek baietz, lekutan zegoela. Hitz horiek bere onetik atera zuten xulapaindarra. Haren ustez, munduko eja bere larretik oso gertu zegoen, eta burdinezko langa sarkor horrekin ukituz gero, akabo mundua. Eta munduko gauza ororen gainetik, mundua bera da inportanteena. Beraz, begiratzeke dago ea petroleorik da-

JUANTXO URDIROZ



Ez usteak
zure atean joka

Xulapaindarraren
ustez, munduko
ardatza bere larretik
oso gertu zegoen, eta
ukituz gero, akabo
mundua.

goen Xulapaingo larre horretan.

Bigarren petroleoaren gorabehera Eguesen gertatu zen. Ohi denez, lagun batek errekararen ondoan baratza berri bat paratu zuen. Baratzean berean putzu bat egin zuen. Halako batean uretan hortzadarra agertzen zela konturatu zen. Norbaitek edo gasolina putzura bota zuela zirudien. Denok daukagu nori aurpegiatu halako barrabaskeriak. Handik zortzian, petroleo geruzak putzuko gaina estaltzen zuen. Herriko jendeari komentatu, eta hauek ere harritu egin ziren. Putzua hustu zuten eta petroleoa barra-barra zerion.

Erreka bera ere belzten hasi zen. Badaezpada ere afera autoritatei jakinaraztea erabaki zuten. Petroleo aurkikuntza erre-

gistratu eta teknikarien zain geratu ziren. Teknikoen ustez, ez zegoen dudarik. Hori petroleoa zen. Dena den petroleo izanda ere, zikinkeriarik gabekoa zen, errefinatuta balitz bezala. Egun batez Arabiako jekeak bezain aberatsak izan ziren Egueseko lagunak.

Eguesen dagoen ospitaleak zeukan arazoaren giltza. Petroleo ganbela fabrikatik bertatik zulatuta ekarria zen, zirrikitu eder batekin. Ezin zuten deus ere hauteman eta ganbela luzaroan petroleoa botatzen aritu zen. Afer horretaz gogoratzean, egun batez aberatsak izan zireneko garaiaz, farré egiten dute Eguesekoek. Kontakizun hauen informazio iturriak bi taberna dira, ikus dai-tekeenez.



Euskal Herri guztietako gazteak bildu ziren Etxarri Aranatzen.

Jarraik gazte erakundeak 15 urte bete ditu. Urtebetetzea ospatzeko, '...ta segi aurrera' lemapean Etxarri-Aranatzen kanpaldia antolatu zuen joan den asteburuan. Abestian «trialara» dator aipatu leloaren atzetik, eta horixe izan zen nagusi Etxarrin, «trialara», hau da, jai giroa, kontzertuak, barreak, bertsolariak, algarak, dantzaldiak...

Etxarrin «...trialara»

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUNEA

Antolatzaileen arabera, Ostegun Santuan, kanpaldiaren lehen egunean alegia, eguerdian dagoeneko 2.200 kanpindenda zutik ziren. Orduetik aurrera eta larunbata bitartean, etengabe 7.000 lagun inguru kanpaturik izan omen ziren Etxarrin, Joseba Kamiok Jarraiko ordezkariak NAFARKARIARI azaldutakoaren arabera. Eguraldi kaskarra zela medio, batzuk joan besteak etorri, mugimendu handi samarra izan zen kanpinean. Orotara hiru egunetan 9.000 lagunek egin zuten lo kanpindendetan, Jarraikoen datuen arabera.

Jarraik ez zuen horren erantzun ona espero, Kamioren arabera. «Mozkorturik gaude izan dugun erantzunagatik, ez genuen horren handia izango zenik espero. Guztiak gainezka egin zuten». Jende pilaketa izugarri handia izan bazen ere, antolakuntza aldetik ez zen arazo handirik gertatu. Xede horrekin lan egin zuten Jarraiko 1.000 lagunek, eta erakundeko militante ez diren Sakana beste 200 lagunek. Orotara 1.200 lagun trafikoa antolatzen, sarrerak saltzen, zerbitzari, koordinazioan, megafonian, garraioetan, segurtasun zerbitzuan eta abar. Horien guzien izenean, Joseba Kamiok jendearen por-

taera eskertu nahi izan zuen. «Azpimarratu nahi dugun datua da jendearen portaera izugarri ona izan zela. Ez genuen inongo arazorik izan, eta jakinda hainbeste jendea bilduko zela, beste gauza bat espero zitekeen. Giroa oso alai izan zen».

Egunean zehar ekitaldi anitz gozatu ahal izan zituzten Etxarrin, kanpadak iraun zuen bitartean. Herriko zineman, esaterako, hamaika hitzaldi egin zituzten. Horietan, beste gauza batzuen artean, sexualitatea, Mexikoko Chiapasko zapatisten altxamendua, Itoizko urtegia, gaztetxeak, munduaren egoera eta Herri Kirol lehiaketen antolakuntza izan ziren mintzagai. Batez beste, 400 lagun inguru hurbildu ziren hitzaldi bakoitzera, «harritzekoa», Kamioren hitzetan. Halaber, hainbat tailerretan parte hartu ahal izan zuten Etxarrin kanpatutakoek, besteak beste, grafitiak, malabareak eta gomaespumazko panpinak egiten ikasteko.

Gauak ere luzeak izan ziren, eta ikuskari anitzekin hornituri-koak gainera. Maia, Arozena, Iturriaga eta beste bertsolari gazterekin bertso saioak, dantzaldiak, akelarreak... Horretaz landa, bi kontzertu erraldoi izan ziren Paristik ekarritako 7.000 lagunentzako karpan. Ehun mila

watt argi, 40.000 watt soinu, hiru metroko altuerako eszenatokia, batek daki zenbat metrotako barra, eta bederatzi talde handi. Ostiralean, Patagonia, Exkixu, Def Con Dos, EH Sukarra eta Platero y Tu. Larunbatean La Polla Records, Banda Bassoti, Baldin Ba-

da eta Su Ta Gar. Kontzertuoz honako balorazioa egin zuen Kamiok. «Dena joan zen oso ondo. Arazo bakarra ostiralean gertatu zen. Eguraldi txarrak argi indarrik gabe utzi gintuen eta kontzertua atzeratu egin zen. Gai-nontzeko guztiak primeran fun-

tzionatu zuen. Kontsumoa aintzat hartuz egin dugun kalkulua- ren arabera, larunbatean 9.000 lagun izan ziren kontzertuan».

Ekitaldi politikoa larunbatean egin zen, kontzertuaren atarian. Kamiok honako modu honetan gogoratzen zuen hori. «Gogor- tzen ditudan artean hunkigarri-riena da. Jarraiko bik hitz egin zuten. 'Ijituren' senideak eta neska-laguna han egon ziren, Juanlu Camarero ere egon zen, Bittor Aiepe 12 urteko kantau- toreak abestu zuen, joterak batek ere bai, dantzariak izan ziren, baita txalaparta ere. Jendea asko berotu zen».

Arazoei dagokienez hiru ai- patu zituen Kamiok: eguraldia, Goardia Zibila eta Renfe. «Egu- raldiak asko zailagotu zituen gauzak. Gero, Goardia Zibilak zenbait kontrol jarri zituen Liza- rrustin eta Altsasun, presentzia ziurtatzeko. Kanpadan ere izan ziren, probokatu eta izorratzeko. Azkenik, Renfek azken momen- tuan huts egin zigun. Trena eska- tu genien Aberri Egunean Etxa- rritik Iruñera joateko. Renfeok ez ziren fidatzen, eta lortu ahal izateko trenak aseguratu izan be- har genituen. Baietz, utziko ziz- kigutela esan ziguten, baina az- ken momentuan, bezperan, ezetz, ez zizkigutela utziko esan zigu- ten».

Nola aldatzen diren gauzak, kamarada!

J.K.L. / IRUNEA

■ Gernika 1987. Bonbardake- taren 50. urtemuga. Aste Santua. Kanpaldia. Itoiz, Hertzainak, Kortatu, La Polla, Potato, Zer Bizio, Ruper... eta abar luzea. Gezurra badirudi ere, harrezke- roztik zazpi urte igaro dira. Eus- kadi Tropikala ahantzirik dago, eta Eibarko heavyen eskutik Euskadi Metalikoa da modan. Su ta Gar, EH Sukarra, Patagonia, Exkixu... eta abar metaliko luzea. Gernikako kanpaldian dozenaka, ehundaka punki izan ziren. Etxa- rrin, punkien arrastorik ez zen geratzen kaskamotz patiladunen erresuman. Sharp izeneko arra-

zakeriaren aurkako kaskamotzek euren kanpaldi berezia egin zuten Jarraikoen kanpaldiaren bar- nean. Guzia aldatu da, eta ni neu ere bai. Gernikara urte gutxi eta diru gutxiagorekin joan nintzen, eta kanpaldiak iraun zuen bitar- tean txorizozko ogitartekoak izan ziren nire eta nire koadrilako gainontzekoen elikagai nagusia. Etxarrin zakarrontzira bota geni- tuen solomo ogitartekoak. Egia esateko, gordin-gordinik zeuden, kasik egin gabe, eta irensgaitzak ziren, baina finean solomo ogi- tartekoak ziren. Zahartzen hasiak gara, Gernikan harrapatu izan bagenitu... Nola aldatzen diren gauzak, kamarada!

«Nafarroan jende gozoa da»

LETXEZAHARRETA / BAIONA

Koldo Ameztoi bere bigarren liburua kaleratu berria du: Nafarroa Behereko herrien esaldiekin 37 ipuin moldatu ditu, umorez eta herriko euskarak duen gozotasunarekin. Lapurdiko 50 esaldi jorratu ondoren eta Zuberoara joan baino lehen, 'Baxenabarren' gelditzen da, tokiko zaporea daukaten kontakizunen bidez.

EGUNKARIA.— Ahozko hizkuntzatik idatzira pasatzeak arazo berezirik sortu al dizu?

KOLDO AMEZTOI.— Egia da alderantziz egiten dudala usaian: nere lanaren egiteko gauza idatziak, finkatuak kondatuz bizi arazten saiatzen naiz. Hor aldiz, buruan pasatzen zaizkidanak idatziz emanez alderantzia iduri, baina usate dut biak lagunak direla, ida-

Julien Vinson XIX. mendeko ikertzaileak bildua eta horrekin banuen estakuru bat, bide bat, helburu bat eta horrekin hasi naiz idazten.

EGUNKARIA.— Ez al zaizu gelditzen hala ere frustrazio zerbait, liburuko hizkiak hilak direlako?

AMEZTOI.— Azkenean hori joko bilakatu da neretzat ez baititut historia horik kondatzen. Iduritzen zait ez direla horretarako eginak, baina irakurtzekoak. Irratirako lan egiten nuenean, hasi nintzen horien egiten eta disziplina zerbaitetan sartu nintzen, Lapurdin hasi, Nafarroa Beherekoekin jarraitu eta Zuberoaraino bidean hasi. Ez nakien gehiegi idaztea zer izaten ahalko zen, ez bainuen 'luma' oraindik ohitua. Jolaste bat izan da neretzat eta gero eta gehiago ida-

▼
«Afrikako zerbait badute benafartarrek, batez ere Garazi aldekoek».

eta egun guzietako gauza txoekin edo sekulan izan ez direnekin eta horiek guziak nahas-mahas, horrelako asma-keta eta ilusiozko bizi batekin egin saltsa bat da. Batzuetan egia da, Zuberoan ibili naizela herriz herri, bakoitzaren berezitasunen ikusten, adibidez batean bada palmondo handia, horiek oro markatu, gero jendearekin mintzatu ahalez, Historiako fitxa zenbaitzu, mapak begira, mendien ize-

filologoak gara doi bat, amak baditu beti euskarazko esaldiak baztertuak neretzako... «Hik nola erraiten duk hori?» dio maiz, euskara bixi-bixia dugu etxean eta hobe! Ez dut zuberotarrez idatziko, nere euskarako zerbaitekin ibiliko naiz.

EGUNKARIA.— 'Baxenabarreko' kontakizun hauetan agertzen duzun jendea Lapurdikoari alderatuz nolako iduri zaizu?

AMEZTOI.— Hemen jendek gauzak pixka bat lasaitasunez hartzen dituzte, Afrikan moduan... Afrikako zerbait badute benafartarrek, batez ere Garazi aldekoek. Lapurdi eta Zuberoakoak, batez ere azken hauek guziz erneagoak dira. Hortako dituzte ere ene ustez, herri bakoitzean, beren 'erranaldiak' bixi-bixiak. Nafarroan, jende

gozoa da, Donazaharren bezala, barne-tik berdin haserre dira baina ez dute agertzen! Dena den pixka bat zirikan ari naiz.

EGUNKARIA.— Zer da horrelako bildumaren xede sekretua? Irria, atsegina sortzea, Euskal Herriaren ezagutaraztea?

AMEZTOI.— Pixka bat horietarik, euskaldun berriei ere testuen ematea, beti hori go-goan dut eta ez naiz gauza konplikatuegietan sartzen. Neri plazer egiteko ere bada!

EGUNKARIA.— Herriarrak ere dudarik gabe...

AMEZTOI.— Badakizu, entzuten duzularik adin bateko jendea erraiten «Herria ezin dugu konprenitu» ari

zara «nora goaz» eta zer egin behar den... Konforme naiz euskara berri behar dela, pilipilean atxiki, normal da bere bidea egin dezan baina denbora berean bide bazterrean uzten diren euskaldun horiei zerbait eskaini behar zaie. Hortxe naiz: horientzat ere idatzen dut!

Koldo Ameztoi

▼
IPUIN KONTALARI



▼
SOSLATA

Bidez bide

Koldo Ameztoi ia Euskal Herri guziko pertsonaia ezagutuenetarik da orain. Bidez bide, herriz herri, toki askotan ibilia da, bere gozotasuna daukaten ipuinen kondalari. Hazparneko 'Hitza Pitz' Kondalarien Jaialdiaren sortzaile dena, Frantziako eta Afrikako hainbat bide ere ezagutu ditu. Denbora joan arau, bere lana ontzen ari da, ikuskaria gero eta landu eta egituratuagoak eskainiz. Bere lan idatzien bigarren liburua eskaintzen digu, Maiatz Baionako argitaletxean, Irene Bordaren marrazkiekin. Herrietako ohitura, esaldi, ipuin eta iraganaren lilurarekin jolasten denak Euskal Herriaren maitasun eta ezagutza handiak eskaintzen dizkigu.



AITOR BAYO

tzia eta ahozkoa. Bien artean jolasten naiz, zeren idazten dudana ere ikusi eta entzun dudana dira eta ez dateke diferentzia handirik. Maiz eskatzen didate kondatuen idaztea eta erraiten diet ia idatziak direla eta ez ditudala berriro idatziko! Hor suertea gertatu zait erran zahar zerrenda baten aurkitzea,

tzi edo asmatu eta gogoia ere ernetu zait eta dinamika batean sartu naiz.

EGUNKARIA.— Dena den, inkesta zerbaiten fruitua dela ematen du: nola egin duzu lan?

AMEZTOI.— Ez da hain zientifikoa, ez naiz etnologoa! Gehiago jostatzen naiz Historia edo izaten ahal diren anekdota

nak, errekek, etxeen formak eta hori dena lagungarri zait.

EGUNKARIA.— Tokiko hizkuntzara egokitzen al zara?

AMEZTOI.— Nik nere 'batua' edo 'euskara bildua' erabiltzen dut. Ahal bada jolasten naiz esaldi batzuekin. Ene ait'amekin horretaz lan egiten dut: joaten naiz haien ikustera. Gu

NOSKIJATOR

© Zaldi Eroak

